



# LITERAKTUM

## Hitzen hiria

### PENTSATU! JAIALDIA LITERAKTUM-EN

UPV / EHU-KO HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA  
FAKTUTATEAK JAIALDIAN PARTE HARTZEN DU BI EZTABAIDEKIN

UPV / EHUK eta **Literaktumek** Tabakaleran, Kutxa Kulturarekin batera, eta Kaxilda liburudendan garatuko diren bi eztabaida eskainiko dituzte aurtengo jaialdian. Urtean zehar, Donostia Kulturak eta UPV / EHUK hainbat ekimenetan duten elkarlanaren islada dira bi jarduera hauek, eta hausnarketarako eta gogoetarako gunek bat zabaltzen dute, batez ere publiko gazte eta unibertsitateko ikasleei begira.

Jarduerari dagokionez, lehenengoa azaroaren 16an izango da #4 Tabakaleran. **Emakumeak eta pentsamendua** izenburuarekin, sei emakumek euren galderak eta argudio kontrajarriak plazaratuko dituzte, filosofia oraindik lekua duela gure egunerokotasunean erakutsiz. *Arantza Etxeberria eta Marisa Hurtado, Belén Altuna eta Alejandra Martínez, Miren Camisón eta Maider Zilbeti* solastuko dute mikro-eztabaiden formatua duen jarduera honetan eta *Ekai Txapartegi* moderatzaile lanetan ariko da.

Eta azaroaren 23an, Kaxilda liburudendan, *Iñigo Astiz* eta *Angel Erro* idazle eta kazetariak pentsamendua, prosa eta poesiaren arteko dagoen erlazioari buruzko bere ikuspuntua azalduko dute, *Oihane Garmendiak* moderatutako mahai inguru batean. **Poesian pentsatu, prosan pentsatu** izenburuarekin jarduera hau eguerdiko 12:00etan hasiko da.

Pentsatu! Jaialdia, bestalde, beste hiru hitzorduetan garatuko da, hain zuzen ere:

- Azaroak 20, Itxaro Bordak eta Antonio Casadok *Susmaezinak* eskainiko dute.
- Azaroak 15 eta 22, filosofiarekin zerikusia duten eta gure bizitzan ohikoak diren zenbait gai landuko dituzte hainbat idazlek: maitasuna, umorea, politika... Teresa Larruzeak, Mikel Urdangarinek, Maddi Nazabalek, Andrés Taleok, besteak beste, parte hartuko dute.